

» DISKOA

Mendebaldetik datorrenari aurre



Iker Barandiaran
@ikerBarandiara

Ez da batere ohikoa musika talde bati halako izena jartzea (A ze taldea!), baina, jakina, taldekideak Bergarakoak dira, eskarmentu handikoak eta lotsabako samarrak: punk-rocka lantzen ibiliak dira Brigada Criminal taldean, bluesa Belceblues-ekin, bidelapurren folka Bizardunak-en, kostaldeko taberna-zulotako baladak Fiachras-ekin eta, despistatzeko edo, doinu helduagoak Mahaster River proiektuan.

Orain dela hiru bat urte, baina, country-rocka lantzea bururatu zitzairen eta mendebaldera jo zuten gogoz eta arimaz. Hala, urtebetera, esentzia hori arrantzatuta *Soft and strong* disko luzea argitaratu zuten. Gerora, baina, zuzenekoetan erakutsi zuten country-rocketik harago sustraietako rock amerikarra egiten ere iaioak zirela; eta egiten zuten horretan sinesgarritasuna transmititzen dutela. Horretan zeresana dauka, besteak beste, Txus Martinez abeslariaren ingeles ahoskera borobilak.

Orain, *Thousand tons of steel* lan berriarekin datoz, eta egin duten jauzia nabarmena da. Lan dotorea, oso garbia eta landua da, eta country-rocka eta rock amerikarra ardatz badira ere, bestelako erregistroetan ere eroso murgiltzen dira; hala, publiko anitza harrapatzeko moduko

Thousand tons of steel

WHAT A BAND

Autoekoizpena, 2018

What a Band taldeko kideak Bergarakoak dira. Argazkian, Oñatiko Antixena gaztetxean.



lana da. Fredi Pelaezekin grabatu dute Pottoko estudioan eta emaitza distiratsua da.

La bestia erabat melodikoa da, country-rockean murgiltzen gaituen ahots bero eta gertukoa aurkeztuz. *Better than ever* hit!a da zalantzarik gabe: bizi-bizia, oso itsaskorra, eta gitarra punteo ederrak dituena. *Part time singer*-ek erritmoa eten egiten du Willy DeVill-en kadentzian harropuzkeria eta cha-cha-cha hurbilduz. *Neon valley* eta *Forever gone* country klasikoaren patroiak moztuta daude, dantzagarri eta egiazko. *Boats of shame* epikoagoa da, irlandar kutsuarekin, baina 60ko hamarkadako rockaren printzak ere baditu. *Mystery tales* folk amerikar benetazkoa da. *Cannon king* surf-rockaren eta erritmo nabarmeneko rock jostaria. *On the road you'll find*, *Deafening lights* eta *The dusk* sentimendu handiz interpretatutako baladak dira. Eta, azkenik, *Revenge* hillbillya indioen oihanean murgildu eta amiltzen den pieza iluna, sasikoa. ■